

## 1.1.1 GAIAREN AURKEZPENA

### > Nire lagunak



Gai honetako helburu nagusia umeeek euren buruaren eta beste batzuen aurkezpena egiten ikastea da. Horretarako, lehenik eta behin, Joxek bere lagunak aurkeztuko ditu; horrela, ereduari jarraituz eta hainbat lanketa eginez, umeeek aurkezpenak egiten ikasteko.

Lanean hasteko, Joxek aurkezpentxo bat bidaliko die umeei: munduan zehar dauzkan lagunak aurkeztuko ditu. Era berean, fitxa bat bidaliko die gelako ume guztien eta Joxeren eta bere lagunaren mural txiki bat egiteko.